

GATIKAKO UDAL FUNTSAREN ISAD

Identifikazio-arloa

Erreferentziazko kodea	ES 48020 AHFB/BFHA U48040
Titulua	Gatikako Udal Artxiboa
Data(k)	1743 – 1940
Deskribapen maila	Funtsa
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	<ul style="list-style-type: none"> – Metro linealak: 3,34 m/l – Kaxak: 24 – Liburu solteak: 9 – Karpetak: 1 – Espediente-kopurua: 347 Papera.

Testuinguru arloa

ekoizlearen izena	Gatikako Udala
Instituzio historia	<p>Gatika Bizkaiko Uribekosta – Mungialdea eskualdean dago, eta Getxoko barruti judizialekoa da.</p> <p>Gatika elizatea Uribeko merindadekoa zen, eta Bizkaiko Jaurerriko Batzarretako berrogeita hamalau zenbakiko eserlekua hartu zuen.</p> <p>Bizkaiko Lur Lauan gertatzen den bezala, Erdi Aroko instituzionalizazio-prozesuan zehar, Gatika elizate bihurtu zen. Parrokia-eliza Santa Mariari eskainita dago.</p> <p>Butroeko gaztelua XI. mendekoa da. Garai hartan, Erdi Aroko dorre tipikoa eraiki zuten Butroetarren etxe zaharraren gainean. Gaminiz kapitainak sortu zuen dorre hori VIII. mendean, Ganzorri edo Gantzurritz harkaitzaren gainean. XIV. mendean jatorrizko dorrea gaztelu erasoezin bihurtu zuten. Hormen gainean beti egon zen Butroetarren zutoihala, Oñatiko bandoko buruak.</p>



Instituzio historia	<p>XIX. mendean, gazteluaren antzinako Erdi Aroko forma aldatu egin zen. Torrecillako markesa, Narciso de Salabert Pinedo jauna, Butroeren aurrien azken jabea, gaztelua estilo exotikoan berreraikitzeke agindu zuen. Kubako markesak planifikatu zuen erreforma, forma gotiko, nordiko eta fantastikoetan oinarrituta, eta almenak, kuboak eta leihoak asmatu zituen. Obra- maisua Nicomedes de Eguiluz izan zen, eta eskultura-dekorazioaz Adolfo Areizaga arduratu zen. Berreraikuntza motela, errenten beharrezko diru-sarreretara mugatua, XIX. mendean hasi eta XX. mendearen hasieran amaitu zen. Ondoren, gaztelua Medinacelliko dukeen eskuetara igaro zen, eta gero Cardonako dukesaren eskura.</p> <p>Behe Erdi Aroan Bizkaiko lurralde osoan izandako bando-kideen borroka jasan behar izan zituen, Lur Lauan eta hiribilduetan bezala, baita mendeetan zehar lurraldeak izan zituen gatazka armatuak ere, XIX. mendeko gerra karlistak eta XX. mendeko Gerra Zibila bereziki.</p> <p>Bere ekonomia landatarra izan da, nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa eta basakoa. Burdinolak eta errotak zituen. Ondare horren barruan daude Butroeko Ola burdinola eta hainbat errota interesgarri, hala nola Butroeko Arbina errota, Zurbano auzoko Toziñaga errota, Lauxarrekoerrota errota, Ugarte auzoko Birlekoerrota edo Latxaga errota eta Libaronako Endetxa errota.</p> <p>Industrializazioa ez da udalerrira iritsi, eta, beraz, biztanleria etengabe jaisten ari da XIX. eta XX. mendeen zati handi batean. XX. mendeko 60ko hamarkadaren ondoren, populazio horren zati handi bat Mungiako eremu industrializatuenera lekualdatu zen.</p>
Artxibo historia	<p>Gatika elizateko agiriak udal artxiboan gorde dira 1992. urtean Bizkaiko Foru Agiritegi Historikora eraman arte. Lekualdaketak, funtsean, 1940 baino lehenagoko dokumentazio historikoa ekarri zuen, eta gainerako dokumentuak udal-artxiboan daude gordeta.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak dokumentazioa lekualdatu aurretik egindako txostenaren arabera, tamaina ertaineko artxiboa da, eta dokumentazioan ez da hutsunerik ageri.</p>



Artxibo historia	<p>Artxiboa udaletxeko azken solairuko hiru aretotan zegoen. Horietako batean, instalazio-unitate mota desberdinetan jarritako dokumentazio gehiena zegoen; bigarreanean, berriz, dokumentazio berriagoa gordetzen zen, eta, azkenik, dokumentu gehienak Udal Epaitegiakoak ziren, baina udaleko beste batzuekin nahastuta.</p> <p>Artxiboaren zati handiena ordenatuta zegoen, kutxa bakoitzaren edukiaren deskribapenarekin bizkarrean eta karpitetan. Azken aretoko dokumentazioa desordenatuena zen. Ez zegoen deskribapen- eta sailkapen-tresnarik, ezta inbentariarik ere.</p>
Sarrera modua	<p>BFAHn gordailatutako dokumentazioa 1992ko urriaren 28an sartu da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Zamudioko Udalak urte horretako abenduaren 10ean sinatuko zuten lankidetzeta-hitzarmena betez.</p>

Eduki eta egitura arloa

Irismena eta edukia	<p>Gatikako Elizateak eta Udalak 1743 eta 1940 artean sortutako dokumentazio historikoa.</p> <p>Horrez gain, kutxa bat ere badago, Udal Epaitegiaren 6 dokumenturekin, 1890 eta 1936 bitartekoak.</p>
Balorazioa, hautaketa eta ezabaketa	<p>Kontserbazio iraunkorreko dokumentazioa.</p>
Sarrera berriak	<p>Beste hitzarmen bat sinatuz gero, sarrera berriak egon daitezke.</p>
Erakundea	<p>Dokumentazioa Udal Artxibozainen Lantaldearen sailkapen-koadroaren bidez antolatu da, serie batzuekin handituta.</p> <p>Koadroa BFAHn dauden udalerrri guztietarako erabiltzen da, eta, beraz, baliteke udalerrri horretan sortutako dokumentazioaren artean serie batzuk ez islatzea.</p> <p>Gobernuaren, Idazkaritzaren eta Udal Administrazioaren eta Ogasunaren jarduerak hartzen ditu, honela:</p> <ul style="list-style-type: none">– Gobernua: 25 dokumentu 1802 eta 1940 bitartekoak.– Idazkaritza: 165 dokumentu 1750 eta 1940 bitartekoak.– Ogasuna: 134 dokumentu 1804 eta 1940 bitartekoak.



Sartzeko eta erabiltzeko baldintzen arloa

Sartzeko baldintzak	Sarrera askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Erreproduktzio baldintzak	Erreproduktzio askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Dokumentuen hizkuntza/idazkera	Gaztelania.
Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	Kontserbazio-egoera, oro har, ona da.
Deskribapen tresnak	<p>Dokumentazio guztia katalogatuta dago, eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak erabiltzen dituen deskribapen-tresnen bidez eskura daitezke:</p> <ol style="list-style-type: none">Sailkapen-koadroa.ARWE datu-basea, artxiboari buruzko katalogazioa kudeatzeko. Hainbat sarbide-puntu eta onomastika, toponimia eta gaikako indize ditu.ARIT datu-basea, kanpo-kontsultarako, aurrekoaren informazio eta sarbide berarekin. <p>Dokumentazio guztia katalogatuta eta jendearen eskura dago.</p>

Lotutako dokumentazio arloa

Jatorrizko dokumenturik ote dagoen eta horien kokalekua	Dokumentazio guztia originala da.
Kopiarik ote dagoen eta horien kokalekua	<p>Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa gordetzen duen dokumentazioaren zati bat digitalizatzen eta Interneten erabiltzaileen eskura jartzen ari da. Sarbidea ARITen datu-basearen bidez ere egiten da.</p> <p>Akta-liburuak, 1830 baino lehenagoko dokumentazioa, 1900 baino lehenagoko dokumentazioa (planoak barne), eta 1910 baino lehenagoko biztanleen erroldak digitalizatu dira.</p>
Lotutako deskribapen unitatea	<p>Gatikako udalarekin lotutako dokumentu-iturriak daude BFAH osatzen duten ataletan, batez ere atal administratibo eta judizialean.</p> <p>Udalerria 1928an Fikakoarekin batu zenez, data horren ondorengo dokumentazioa Gamiz Fikakoa da.</p>
Argitalpenei buruzko oharra	Iturbe Mach, Ander (1993): Gatika, Laukiz, Maruri eta Urduliz. Azterketa historiko-artistikoak. Bizkaiko herrien monografiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.



Oharren arloa

Oharrak	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak artxibo historikoaren funtzioa betetzen du funtsak gordailutu dituzten udalerrientzat.
---------	--

Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4 SL enpresak Bizkaiko Agiritegi Historikoko udal-atalerako egindako deskribapena, bertako teknikariak gainbegiratuta.
Arauak edo erregelak	General International Standard Archival Description, Second Edition, ISAD (G) (Agirien Deskribapenerako Nazioarteko Arau Orokorra). Deskribapen Agirien Batzordeak hartutakoa Agirien Nazioarteko Kontseiluan, Stockholmen (Suedia), 1999ko irailaren 19-22an. Madril. 2000.
Deskribapenaren data	2020/01/20